«Euskal Herriko Lurralde Elkarte batentzat»

EAJ PNB

25 Thiers karrika - 64100 BAIONA

Tél. 05 59 46 15 34 - Fax. 05 59 59 54 84
e.mail : eaj.pnb@wanadoo.fr

EAJ-PNBren INSTITUZIO MOZIOA

Euskal Herriko lurralde elkarte baten alde

Euskal Herri departamenduaren alde den mobilizazioa gero eta ahulago da, aldarrikapen honek hautetsi eta herriaren aldetik gehiengoa lortzen badu ere. Akidura hau faltsuki baliatua da Estadoaren axola gabekeriaren gandik Ipar Euskal Herriaz mintzatzen delarik.

Aldarrikapen honen baztertzeko baliatuak diren argudioak ezagunak dira :

- Ezin dela kontrola egoera, Hego Euskal Herriko politika testuinguruaren gatik (BATASUNAren legez kanporatzeak pundu hau azkartuko du)
- Departamenduaren zaharkeria gaurko eskualde eta herri elkargoen garaian

Bere aldetik, RAFFARIN gobernuak deserdiratzearen II. zatia idekitzen du «saiakuntzaren» konzeptua aintzinaraziz. SARKOZY barne minixtroak Korzikan egin hitzaldi baten arabera, erakunde publikoak menturaz alda daitezke.

Testuinguru hortan, " Régions et Peuples Solidaires " (R&P.S) federakuntzak desmartxa amankomun bat abiatu nahi du, gure lurraldeen boza eta proposamenak entzunarazteko 2002ko urtea bururatu arte iraganen den instituzio eztabaidan aldaketen finkatzeko.

Garaia etorria da EAJ-PNBrentzat, Eusko Alkartasunaren sustenguarekin, bere jarrera eta nahikeriaren berriz finkatzeko instituzio mailan Iparraldearentzat.

Gaurkotze honen oinarriak dira :

- 1996ko urrian ezagutarazi zen mozioa
- HEMENDIKetan Estadoaren aldatzeko proposamenak

I. INSTITUZIO ALDARRIKAPEN OROKORRAK

1958ko frantses konstituzioaren aldaketan gehienik oinarritzen da baita ere araudi eta legislatibo neurri batzuen gainean. Aintzinetik aldarrikatu behar diren neurriak dira eta ongi heltzeko baldintza bat.

a) Konstituzioaren mugitzea zinezko aldaketa baten egiteko

- Frantses herriaren barnean herri eta nazionalitate ezberdinen izaitea onartzea
- Errepublikaren oinarrian eta lege amankomunean onartzea deserdiratzearen konzeptua
- Araudi burujabetzaren orokortzea segurtatzea nahi duten eskualdeeri
- Legislatibo burujabetzaren saiakuntzaren deretxoa onartzea
- Senadoaren aldatzea lurraldeen edo kolektibitaten goi ganbara bilaka dadin
- " Pays " eta hiri elkargoen aldatzea, elkarte bereziak bezala
- Frantzian diren eskualde edo guttitu hizkuntzen onartzea

b) aldaketa legislatiboak abiatzea

- Karta administratiboaren berriz antolatzea, lekuko herri galdeketen ondotik (erreferenduma)
- Eskualde batzuetan departamenduen kentzea berehala (Korzikan, Ile de France…) eta heien aldatzea " pays " eta hiri elkargoen bidez.
- Eskualdeek eskuduntza garrantzitsuak eskura ditzaten
- Lekuko fiskalitatearen erreforma erradikala egitea (lurralde autonomoentzat egoki diren zergen sortzea, lekuko zergen berezitzea)
- Lurralde autonomoentzat eta nahi duten erkidegoentzat euro-herrialde edo mugazgaindiko harremanen errexteko egiturak sortzea
- Ainitz kargu publikoen debekatzea (denboran eta kopuruan)

II. EUSKAL HERRIKO ALDARRIKAPEN BEREZIAK

Gorago proposatutako konstituzio eta legislatibo aldaketen arabera, EAJ-PNBek Ipar Euskal Herriarentzat aldarrikatzen du, instituzio bilakaera hau :

1. **Euskal Herriko lurralde elkartea**

- ☐ Euskal Herriko lurralde elkartea eskualde esperimentala bezala eraikiko da. Eskualde Kontseilu eta Kontseilu Orokorren eskuduntzak izanen ditu, erran nahi baita Eskualde/departamendu bat izanen dela :

    - lurralde biltzar bakar batekin, araberako botuan hautatua,
    - diru burujabetza batekin
    - eskuduntza berezi batekin, araudi saiakuntzan, hizkuntza politikan eta mugazgaindiko harremanetan.

- ☐ Euskal Herriko lurralde elkarte baten izaiteko baldintzak dira :

    - Oraiko Pirineo Atlantikeko departamenduaren partikatzea herriaren erabakiaren arabera.
    - Deretxo betez elkarte berri baten eraikitzea gaurko pays Pays basque «lurraldearen» eremuan, eta kontsulta baten ondotik, egitura hortan sartu nahi duten herriak ere hor sartzea.
    - Akitania eskualdearen ondoan elkarte berri berezi hori eraikitzea.

- ☐ Garapen kontseilua Euskal Herriko zozial eta kontseilu ekonomikoa bilakatzea

- ☐ Sektoreko erakunde bereziak sortuko dira, hala nola laborantxa ganbara.

2. Eskualde araudi bat euskararentzat eta saiakuntza hizkuntza mailan

Aintzinetik Konstituzioaren 2. artikulua aldatu behar da : eskualde hizkuntzen ko-ofizialitatea beren gune historikoetan segurtatu behar da.

Iparraldeari doakionez, euskara eta frantsesa bi hizkuntz ofizialak bihurtu behar dira, kultur okzitanaren errespetuan. Euskal Herriko hitzarmen bereziaren ildotik, horrek erran nahi du :

- ☐ Hezkuntza mailan :

    - Murgiltze eta elebidun ereduetan euskarazko hezkuntzaren eskaintzaren orokortzea.
    - Helduen alfabetizatzeko eta ikasketak segurtatzeko luzarazko hitzarmena finkatzea.

- Euskararen promozio orokorraren segurtatzeko :

  - Seinalatze elebidunak jartzea
  - Hizkuntza politika zerbitzu publikoetan (seinalaketa, dokumentoak, langile elebidunak) jartzea
  - Egitura pribatuei euskararen garatzeko diru-laguntzak eman (seinaletika, dokumentoak, langile elebidunak)
  - Euskarazko komunikabideak garatzea eta beste komunikabideetan euskararen presentzia azkartzea.

Horrelako neurrien betetzeko euskarari buruzko araudi berri batean, "Euskal herriko lurralde elkarteak" ekimenen bultzatzeko eta saiakuntzaren segurtatzeko ahalbideak izan behar ditu.

3. Mugazgaindiko harremanen bultzatzeko saiakuntza

Iparraldeko egoera geografikoa kontuan hartuz, Hegoaldeari begira, espanol eta frantses estadoen mugari begira, Euskal Herriko lurralde elkarteak ahalbideak izan behar ditu eskuduntza berrien ukaiteko :

- Mugazgaindiko harremanetan
- Europako egiturazko diru-iturrien kudeaketa zuzenean

Saiakuntza zuzendua izan behar da nazio arteko harremanetarako erakunde publiko berezi baten sorkuntzan euskal euro-eskualde mailan.

4. Hautes-barrutien berantolaketa

Hurbiltasunean oinarriturik, nazio eta lekuko hauteskundeen hautes-barrutiak pentsatuak izan behar dira Euskal Herriko hiritarrek beren eremuan eginbeharrak egin ditzazten.

- Legebiltzarreko hauteskundeak : IV garren hautes-barrutiaren (euskal-bearnesa) kentzea eta hautes-barruti berri bat egin Vgarren eta VIgarrenak berriz moldatuz ondoren.

- Departamendu eta eskualde hauteskundeak : orain den sistema aldatu behar da lurralde biltzar bakarra kontuan hartzeko, bestalde kantonamenduak kendu behar dira hautes-barruti bezala.

- Senadoreen hauteskundeak : araberako sistema hartu behar da senadoreen ondoko hauteskundeentzat (deserdiratze eta nazioko aldakuntzetako egina izanen den lege organikoaren arabera).